

BIZI HITZA

Iraila 2025

«Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!» (Lk 15, 6).

Itun Zaharrean, artzainek ardiak zenbatzen zituzten soroetatik itzultzean, galdu zena bilatzeko prest. Basamortuan ere barneratzen ziren gauez, ardi galduak aurkitzearen.

Parabola hau galera eta aurkikuntza istorio bat da, artzainaren maitasuna azaleratzen duena. Ardi bat falta dela konturatzen da, bilatu, aurkitu eta bizkarrean eramaten du, ahulduta eta izututa dagoelako, agian zaurituta, eta artzainari bere kabuz jarraitu ezinik. Berak eramaten du gordelekura, eta, azkenik, pozez beterik, berarekin ospatzera gonbidatzen ditu auzokoak.

«Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!».

Kontakizun honetako gai errepikariak hiru aditzetan labur ditzakegu: galdu, aurkitu eta ospatu.

Galdu. Berri ona da Jauna desbideratzen denaren bila doala. Sarritan, inguruko basamortuetan galtzen gara, edo bizitzera behartuta gauden basamortuetan, edo babes hartzen dugun basamortuetan; abandonuaren, marjinazioaren, pobreziaren, gaizki ulertuaren, batasun ezaren basamortuak dira. Artzainak han ere bilatzen gaitu, eta bistatik galtzen badugu ere, berak beti aurkituko gaitu.

Aurkitu. Saia gaitezen irudikatzen artzainak basamortuan egiten duen bilaketa gogotsuaren eszena. Bere indar espresiboagatik zirrara eragiten duen irudia da. Artzainaren eta ardiaren poza uler dezakegu. Bien arteko elkartzeak segurtasun sentazioa itzultzen dio ardiari, arriskutik libratu delako. Beraz, aurkitzea Jainkoaren erruki-ekintza bat da.

Ospatu. Bere lagunak biltzen ditu ospatzeko, bere poza partekatu nahi duelako, honen ondorengo beste bi paraboletan gertatzen den bezala, galdutako txanponarena eta aita errukitsuarena (ik. Lk 15, 8 eta 15, 11). Jesusek poza denekin partekatzea zein garrantzitsua den ulertarazi nahi digu, eta bestea epaitzeko tentaziotik inmunizatzen gaitu. Denok gara pertsona aurkituak.

«Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!».

Bizi Hitza hau Jainkoak pertsonalki gu guztiongan duen errukia eskertzeko gonbitea da. Elkarrekin pozteak, elkarrekin gozatzeak, batasunaren irudi bat erakusten digu, non ez dagoen zintzoen eta bekatarien arteko kontrajarririk, baizik eta batzuek besteen pozean parte hartzen dugun.

Chiara Lubichek honela idazten du: «Jainkoaren bihotza ulertzeko gonbita da, bere maitasunean sinestekoa. Kalkulatzen eta neurtzen ibiltzeko joera dugunez, batzuetan uste dugu Jainkoak gureganako duen maitasuna ere nekatzera irits litekeela [...] Jainkoaren logika

ez da gurea bezalakoa. Jainkoa gure zain dago beti; are gehiago, poz handia ematen diogu Berarengana itzultzen garen bakoitzean, nahiz eta hamaika aldiz izan»¹.

«Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!».

Batzuetan gu izan gaitezke artzainak, elkar zaintzen dugunak, eta maitasunez goaz gugandik urrundu direnen bila, gure adiskidetasunetik, gure komunitatetik, baztertuen bila, galduta daudenen bila, txikien bila, bizitzako probek gure gizartetik bazter utzi dituztenen bila.

Honela kontatzen digu hezitzaile batek: «ikasle batzuk noiz behinka etortzen ziren klasera. Denbora librean, eskola ondoko merkatura joaten nintzen, han aurkituko nituelakoan, dirua irabazteko lan egiten zutela entzuna bainuen. Egun batean, azkenean, ikusi nituen, eta harrituta geratu ziren haien bila joan nintzelako, eta zirrara egin zien hezkuntza-komunitate osoarentzat zein garrantzitsuak ziren ikusteak. Ordutik klasera erregulartasunez etortzen hasi ziren eta benetan festa bat izan zen guztiontzat».

Patrizia Mazzola eta Bizi Hitzaren taldea

¹ C. LUBICH, 1986ko iraileko Bizi-Hitza: *Palabras de Vida/1 (1943-1990)* (ed. F. Ciardi), Ciudad Nueva, Madril 2020, 387-388 orr.